

Itsas Memoria Euskal Herriko itsas gaietarako buruzko aldizkariaren zazpigarren ale hau 36 ikerketa edota hausnarketa lanek osatzen dute, eta bere gai monografikoa Euskal Herriko itsas eta ibai portuen historia da. Gipuzkoa, Bizkaia eta Lapurdiko portuen azpiegituren historiari buruzko testuak biltzen ditu, eta baita zenbait portutako historia sozial edo ekonomikoaren ikuspegi zehatzak ere, besteak beste, Donostia, Pasaia, Bilbo, Baiona, Deba, Bedua, Hondarribia eta Ondarroakoak. "Hainbat ikerlan" izeneko atalean, gai ezberdinei buruzko lan interesgarriak ere aurkezten dira, hala nola, Blas de Lezoren biografiaren berrikuspena; azken bi arpoilari euskaldunen historia edota merkatal-ontzidien emakumeen presentziaren analisia, ahozko testigantzetan oinarrituta.

Itsas Memoria bi urtean behin ateratzen den argitalpena da. Euskal kostaldearekin eta itsasoarekin lotutako ikerkuntza garatzea du xede. Gaur arte Museoak argitaratutako *Itsas Memoria* aldizkariaren lehenbiziko zazpi zenbakietan 237 artikulua daude. Artikulu horietan 176 adituren lankidetzak eman da, unibertsitate alorrekoak gehienak. *Itsas Memoria* aldizkariaren edukia (4.640 orrialde) Museoaren webgunearen bidez kontsulta daiteke.

Itsas ikerketen garapenerako *Itsas Memoria* aldizkariaren ekarpena argitalpen espezializatu desberdinetan nabarmendu da. Adibide gisa, Aingeru Zabala historiagilearen iritziz, "*Itsas Memoria* aldizkariaren sorrerak, Euskal Herriko itsas kontuen inguruko argitalpen foro bat ez ezik, ikerketak bultzatzeko foro bat abian jartzea jartzea baimendu du (...)" [*Obradoiro de Historia Moderna*, 17. zkia., 2008, 137. or.]. José Luis Casado Soto historiagile ospetsuak hitzetan, "Espainian argitaratzen diren itsas historiako aldizkariaren artean entitate handienekoa Donostiako Untzi Museoak argitaratzen duena" [*Itsas Memoria*, 6. zkia., 2009, 44. or.]

Itsas Memoria eta aldi baterako erakusketetara lotutako beste argitalpen monografiko batzuen bidez, 1991ean sortu zenetik, Donostiako Untzi Museoa ekarpen sendo eta zabala egiten ari da euskal itsas kultura bere dimentsio guztietan, bai iraganean, bai orainaldian, ezagutu ahal izateko.

El séptimo volumen de *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco* presenta 36 artículos de investigación o reflexión y tiene por tema monográfico la historia de los puertos marítimos y fluviales del País Vasco. Incluye textos sobre la historia de las infraestructuras de los puertos de Gipuzkoa, Bizkaia y Lapurdi aunque ofrece también trabajos sobre aspectos parciales de la historia social o económica de puertos concretos como Donostia, Pasaia, Bilbao, Baiona, Deba, Bedua, Hondarribia u Ondarroa entre otros. En el apartado "investigaciones diversas" se presentan además otras interesantes aportaciones sobre las materias más diversas: desde la revisión de la biografía de Blas de Lezo, a la historia de los últimos arponeros vascos pasando por el estudio del papel de las mujeres en la marina mercante a partir de testimonios orales.

Itsas Memoria es una publicación de periodicidad bienal, cuyo objetivo es el desarrollo de los estudios marítimos relacionados con el litoral vasco. Hasta el momento el Museo ha publicado siete números que incluyen un total de 237 artículos. Han colaborado en ella 176 especialistas, en su mayor parte adscritos al mundo universitario. Las 4.640 páginas que suman los siete volúmenes de esta publicación pueden consultarse a través de la web del Museo.

La aportación de *Itsas Memoria* ha sido reconocida en el ámbito de la cultura marítima como una obra de referencia. Sirva como ejemplo la opinión del historiador Aingeru Zabala: "La creación de la revista *Itsas Memoria* ha permitido la puesta a punto de un foro no sólo de publicación sino también de incitación a la investigación en el País Vasco de cuestiones fundamentalmente marítimas (...)" [en *Obradoiro de Historia Moderna*, nº 17, 2008, p.13]. Otro prestigioso historiador, José Luis Casado Soto, señalaba por su parte: "El Museo Naval de San Sebastián publica la revista de historia marítima de mayor entidad entre las editadas en España" [en *Itsas Memoria*, nº 6, 2009, p.44].

A través de *Itsas Memoria* y otras publicaciones monográficas ligadas a exposiciones temporales, el Untzi Museoa-Museo Naval de Donostia viene haciendo, desde su fundación en 1991, una sólida y extensa aportación al conocimiento del pasado y el presente de la cultura marítima vasca en todas sus dimensiones.

Ikerne Badiola Garciandia

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko Diputatua
Diputada del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte